



## Eskiak 100 urte

# Lehenengo ipurdikoak Tolosan hartu zituzten

1908ko martxoaren 5koa da goiko argazkia, Lekunberri inguruan ateratakoa. Norvegiar bat eta bost tolosar ageri dira, baina ez edozein tolosar, eskia praktikatu zuten lehenengo euskaldunak izan ziren. Argazki hau atera zieten egunean jarri zituzten eskiak estreinakoz eta irudi historikoak 100 urte beteko ditu datorren hil hasieran.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: "...Cuando el esquí comienza" liburutik

**ESKIAREN HASTAPENAK** bizi izan zituztenetatik ez da inor geratzen, baina bai 50 urte iraun zituen Tolosako (Gipuzkoa) eski klub aitzindarian ibilitakorik. Bere oroitzapenak berreskuratu aurretik, ordea, komeni da historia pixka bat gogora ekartzeari. Eskandinavian, elurretan bidea egiteko eski gainean ibiltzea aspalditik ohikoa bazen ere, XIX. mende erdialdean hartu zuen kirol izaera, Sadre Norhein izeneko norvegiarrari esker. Eskia European zabaldu zenean, herrialde gehienetan erabilera militarri lotuta egin zuen, ez ordea Euskal Herrian. Historia bitxia izan zen gurea.

XX. mende hasieran, papergintzan erreferentzia zen Tolosa, eta negozio haren magalean fabrika ugari sortu zen. Hala, Norvegiako Mustad iltze enpresa European barna egoitza berriak irekitzen hasi zenean, Espainiako eta Frantziako

estatuen artean mugatik gertu zegoen leku industrializatu bat hautatu zuen: Tolosa bera. Eta Mustad fabrikari lan egitera etorritako norvegiarrek gure parajeetan arrotza zen dibertsioa ekarri zuten eurekin.

1908ko urtarrileko elurteekin batera, langile norvegiarrak eskiekin atera ziren kanpora eta euren salto eta trebeziarekin bizilagun tolosarrak zur eta lur utzi zituzten. Askok ez zekiten eskia zer zen ere eta bazekitenek aldizkarietatik baino ez zuten ezagutzen. Herriko elitearen artean segituan lortu zuen arrakasta eta urteko bigarren elurtea aprobetxatuz, Tolosako bi gizonezko estreinaiko saiotxoak egitera animatu ziren, martxoaren 2an, Aimond Enebok ingeniari norvegiarraren agindupean. Lehenengo txango antolatua, ordea, martxoaren 5ean egin zen, Lekunberrira (Nafa-



MADDI SOROA

Aurreko orrialdean, ezker-eskuin: Policarpo Elosegi, Aimond Enebok, Jenaro Ruiz Arkaute, Jose Eizagirre, Ramon Irazusta eta Isaac Lopez Mendizabal. Goiko irudietan, Lopez Mendizabal bera ez oso modu ortodoxoan salto egiten (1909); Carmen Irazusta (1912); eta Jose Maria Azurza, Baraibarko bidea irekitzeko ahaleginetan (1957) eta gaur egun, norvegiarren origarriaren aurrean, Tolosan.

rroa), eta Aimond Eneboekin batera Policarpo Elosegi, Jenaro Ruiz Arkaute, Jose Eizagirre, Isaac Lopez Mendizabal –*Xabierto* umeentzako liburu entzutetsuaren egile eta euskaltzale ezaguna– eta Ramon Irazusta tolosarrak abiatu ziren, *cuña* nola egin, birak nola hartu eta erortzeko modu egokienak ikasteko.

Bistan da gozatu zutela kirol berriarekin, urtebete geroago, 1909an, Ski Club Tolosano elkarte sortu baitzuten. Lehenengo urteak oparoak izan ziren klubarentzat: Lekunberri eta Uitzira txangoak egin zituzten –benetako espedizioak garai hartarako–; harriak eta elurra pilatuz tranpolinak inprobisatu zituzten –saltoa izan da beti norvegiarren espezialitatea–; txapelketak antolatu eta eski lehiaketetan parte hartu zuten emaitza onak lortuz –batez ere norvegiarrei esker, dena esan beharra dago–; eta nazioarteko kongresu bat prestatzea ere egokitu zitzaion. Bitxia da orduko argazkietan trajedun gizonezkoak eta txorkatilarainoko soinekoak daramatzaten emakumezkoak eskiatzen ikustea.

Lehenengo Mundu Guda eta hurrengo urteetan, 30 bazkide inguruko elkarte geldirik egon zen eta urte ilunak izan ziren, harik eta 30eko hamarkadan eski kluba berpiztea lortu zuten arte. Jendearen zaletasuna indarberritu eta txapelketak eta bidaia luzeagoak egiten hasi ziren berriz –Candanchura joateko, adibidez, tren berezia, automotorea, alokatu behar zuten–. Bazkide berriak lortu zituzten, Donostia edo Bilbotik etorriak, eta aterpe modura Candanchu Hotela sortu zuten 1934an. Zorte txarra izan zuten haatik, bi urtera Espainiako Gerra Zibilak eztanda egin baitzuen, berriro ere klubaren asmoak zapuztuz.

### Azurza, arrokak saihestuz

Gerra Zibila ostean, Tolosako eski elkarteak bere jarduna berreskuratu zuenean, Jose Maria

Azurza klubeko bazkide egin zen, anaia zahararren zaletasunari jarraiki. 40ko hamarkada bukaeran idazkari izendatu zuten eta kargu hori mantendu zuten 1963an kluba ofizialki desegin zen arte. Egun, 75 urteko abokatu hau da Ski Club Tolosanotik bizirik geratzen den zuzendaritzako kide bakarra eta oso gogoan du garai hura: “Gaur egun irakasleak eta ikastaroak daude, orduan autodidaktak ginen, Aralarrera igo eta bakoitzak ahal zuen moduan jaisten zuten aldapa, arrokak, harriak, izotza... saihestuz, ez zegoen gaur egungo pista garbirik! Kolpeak hartuz ikasten genuen, eta aldapak igotzea ere gogorra zen, ez baitzegoen teleskirik, ahal zenetan eskiak jantzita igotzen genituen, eta malda oso handia bazen, eskiak bizkarrean hartu eta oinez”.

Materiala ere oso bestelakoa zen: batez ere fondoko eskia egiten zuten eta Euskal Herria ez zen ezagutzen. Arotzak, orduan famatu ziren Attenhofer markako espatulak koptatuz, lizar egurrezko eskiak prestatzen zituen eta sekulako zeremonia izan ohi zen: egurra doblatu ahal izateko ur irakinetan sartzen zuten, botak neurrira eginak ziren eta loturak botara sopletearekin berotuz akoplatzen ziren; eskiek norberarentzat baino ez zuten balio. Gainera, garai hartako loturak zurrinak ziren, gogorrak, eta erortzean ez ziren gaur egungoen moduan askatzen. “Orain, orduko loturak erabiliz gero hirurogeitik gora haustura egongo lirakeke egunero edozein eski estaziotan. Orkatila bihurrituta erortzen bazinen, hezurren bat hausten zenuen zuzenean”, dio Azurzak.

Idazkari ohiaren esanetan, 50eko hamarkadan batez ere Tolosako jendea biltzen zuten klubak, inguruko herrietan ere eski elkarte gehiago sortzen hasi baitziren; Donostiako Club Vasco de Camping ezaguna, esaterako. Oraindik nor-

## • Eskiak 100 urte

vegiarren bat geratzen zen, hasiera-koen seme-alaba edo bilobaren bat, oso eskiatzaile onak hauek ere. Eta taldean emakume asko zituztela ere azpimarratu du Azurzak. Tolosako elkarteko datuen arabera, Gerra Zibila ondoren 98 gizon eta 47 emakume osatzen zuten taldea. Hastapenetatik ugari izan ziren emakume eskiatzaileak, eliteari zuzendutako beste hainbat kiroletan gertatu izan den moduan (tenisa kasu).

### Teleskia Aralarren

30 bat pertsonentzako Orendaingo autobus zaharra alokatu eta elur bila Baraibarrera egiten zituzten txangoak gogoratzerakoan dirdira egiten dute Azurzaren begiek. Dena den, ateraldiak antolatzeaz gain gauza garrantzitsuak egin zituzten elkartekideek garai hartan: aldizkari espezializatu batek diseinaturiko proiektu batean oinarrituta teleskia muntatu zuten Aralarren. “Campeón markako motor bat lortu genuen, baina tamalgarria zen, ezinezkoa zen martxan jartzea, Igaratzako aterpean zegoen eta izugarriko hotza egiten zuenez motorrak izotz-puska zirudien”, kontatu du idazkari ohiak. Okerrena ez zen hori izan ordea: “Teleskia aterpea baino beheraxeago muntatzea otu zitzaigun, baina hain

## Ekitaldi bereziak

✓ **Martxoak 5:** Francisco Tuduri Esnal ...*Cuando el esquí comienza* liburua egilearen hitzaldia. 20:00etan Tolosako Kasino aretoan.

✓ **Martxoak 6:** Eski modalitate desberdinetan dabiltzanen arteko mahai-ingurua. 20:00etan Tolosako Kasino aretoan.

✓ **Martxoak 7:** Afari omenaldia Lekunberriko Aiestaran hotelean. Joan nahi duenak ondorengo telefono zenbakietara dei dezake:

943 288 642 (Alberto);

670 029 898 (Ane).

justu zonalde hura haizeak astintzen zuen eta elurra eramaten; elurrik gabeko aldapan jarri genuen teleskia! Behin baino ez genuen proba egin eta porrot itzela izan zen”. Hala ere, bigarren saiakera bat ere egin zuten: moto baten motorra lortu eta Urraki goialdean probatu zuten. “Orduan ondo joan zitzaigun, baina 50eko hamarkada hasierako uholdeek motorra, teleskia eta dena eraman zuten!”. Hori bai, Euskal Herriko lehenengo teleskia beraiena izan zela esan daiteke, ezbaierik gabe. Urte haietako beste abentura handia Aralarra Basozaintza Etxeranzko Baraibarko errepedea irekitzea izan zen –ikus argazkia–, kamioitza bati Norvegiatik ekarritako kuña formako pala akoplatuz.

1959an klubaren urrezko ezteiak ospatu nahi izan zituzten, baina ez zuen elur maluta bakar bat ere bota. Halaber, garai hartan Uzturre Mendi Elkarteak jaio zen, eskiatzaile asko bertara aldatu ziren eta Ski Club Tolosano aitzindariak bere azken astinduek eman zituen. Ez ordea kideek; Azurzak berak eskiatzen jarraitzen du gaur egun, Candanchun du ekipoa eta fondo asko eginga denez orain alpinoa nahiago duela dio. Hiru urrezko arau ditu elurretara ateratzeko: elur ona, eguraldi ona eta jende gutxi. ■

Abt'x 08  
www.bertsozale.com

Arabako bertsozale trapeketa 2008

1. Kanporaketa

Otsailak 23  
LAUDIOko Basalarrina Elkarteak  
20:00

Iñaki Viñaspre  
Juan Mari Juaristi  
Izar Mendiguren

Serapio Lopez  
Ander Solozabal  
Ekaitz Samaniego

Gai-jartzailea: Lierni Altuna

Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarteak

Laguntzailea: ARGIA

Babesle nagusiak: Diputación Foral de Álava, Arabako Foru Aldundia, Obra Social